

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus -- www.donostia.ehbildu.eus -

ARAU PROPOSIZIORAKO EKIMENA,

UDALBATZAREN ORGANO ARAUDIA ALDATZEKO

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 90. eta 91. artikuluak oinarri, Udalbatzaren Organo Araudia aldatzeko ARAU PROPOSIZIORAKO EKIMEN hau aurkezten du, Udal Organoetan hiritarren parte hartze eskubideari dagokionean.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko uztailaren 26an, Turismo Uholde Handiko Eremuaren inguruko eztabaidaren harira, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuen komertzio arloko ordezkariek, urte bereko urriko udalbatzarrean aukera hau baliatzeko eskaria erregistratu zuten. Geroztik, gora-beherez jositako ibilbide bat egin behar izan zuten, eta **urte erdi beranduago**, 2017ko urtarileko udalbatzan (nahiz eta abenduko gai-zerrendan txertatu), Herritarren galderak txandan, euren kexa-eskaera aurkeztu ahal izan zuten arte.

Gure aldetik, ondorio garbi bat atera genuen: batzorde zein udalbatzarretan herritarren eta eragileen parte hartzeari eman dakioken espazioa, egun indarrean dagoen araudi eta prozedurak guztiz baldintzatzen duela eta ez duela bat ere errazten elkarrizketa publiko aktiboa, demokraziaren zutabeetako bat izan arren. Hori dela eta, udalbatzan gure taldeak aurkeztutako "Sindikatuek euren iritzia emateko eskubidearen" inguruko mozioan, ondokoa zioen 3. puntu txertatu genuen:

"Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal-gobernuari aurkez dezala Herritarren Partaidetzarako Arau Organikoaren 18. artikuluaren egokitzapenerako arautze-proposamen bat, Donostiako hiritar eta elkarteen ordezkariekin, batzorde zein udalbatzarretan eskaera eta kexak zentzuzko epeetan aurkezteko eta erantzuna jasotzeko eskubide subjektiboa izan dezaten."

Izan ere, Hiritarren Parte Hartzearen Araudi Organikoak 18. artikuluan dio elkarrekin aukera dutela Udalari zuzendutako eskaerak edo kexak dagokion batzorde edo udalbatzarrean ahoz azaltzea. Horrekin batera, gogoratu behar da 2014ko apirileko Udalbatzarraren Erregelamendu Organikoaren aldaketan, udalbatzarraren egitura arautzen duen 66. artikuluan, "herritarrek egindako galderak" izeneko azken puntu bat txertatu zela ohiko gai-zerrendan.

Mozioa hori aho-batez onartu zen 2017ko urtarileko udalbatzan. Urte bereko martxoan, mozio honen betetzeaz galdetuta Udal-gobernuari, adierazi zitzaigun Arau Organikoaren aldaketa ez dela

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus -- www.donostia.ehbildu.eus -

baztertzen, baina lehen lehenik instrukzio bat egingo zela herritar zein elkarrekin udalbatzarretan hitza hartzeko aukeraren izapidea bermez egin ahal izateko.

2017ko maiatzean, berriro, gaiaz galdetuta, adierazi zitzaigun Partaidetzarako Arau Organikoaren 18. artikuluarekin lotutako instrukzioa Idazkaritza Nagusiarekin adosten ari zela eta bide onetik omen zihola. Era berean eta paraleloki, iradoki genion Udal-gobernuari udalbatzarrean hitza hartzeko eskubide hori juridikoki egonkortzeko lagungarria izan zitekeela Partaidetzarako Arau Organikoa eta Udalbatzaren Erregelamendu Organikoa koherente izan eta bat etortzea. Izen ere, Udalbatzako araudiaren 2. xedapen gehigarrian ezartzen da “ Herritarrek Udalbatzan eta udalbatzaren batzordeetan parte hartuko dute Herritarren Partaidetzaren Araudi Organikoak eta Udalbatzaren Araudi honek ebatzitakoaren arabera”. Hori dela eta, eraginkorra iruditzen zitzaigula izapidetzen ari zen Erregelamendu Organikoaren egokitzapena aprobetxatzea aipatu Kontrol Mozioaren aldaketa ere txertatzeko. Zentzu berean, 2014ko apirileko Erregelamenduaren aldaketan, “Herritarrek egindako galderak” puntu txertatu bazeen ere ohiko gai-zerrendan, herritarrek hitza hartzeko eskubidea eta dagokion bermezko prozedura osatu gabe jarraitzen duela uste dugu.

Sindikatuek udal batzarrean hitza hartzeko eskaria aurkeztu zutenetik, urtebete pasa den honetan, udal-gobernuak, baina, ez du Partaidetza Arau Organikoa aldatu eta, era berean, ez du EH Bilduren maiatzeko iradokizuna gauzatu, Udalbatzako araudiaren-egokitzapenean hitza hartzeko eskubidea egonkortzeko artikulu aldaketarik ez baitu proposatu. Zentzu honetan, EH Bildutik bietan aldaketa proposatzen dugu udalbatzarrean herritarrek hitza hartzeko eskubidea egonkortu eta bermezko prozedura juridiko-administratibo garden, eraginkor eta betegarri bat izan dezan.

Ekimen honen baitan, 2016ko apirilean indarrean sartu zen 2/2016 legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, batzorde edo udalbatzarretan herritarrek hitza hartzeko eskubidea babesten duela azpimarratu nahi dugu. Oro har, herritarren partaidetzari dagokionean xedatzen du, herritarrek eskubidea dutela:

43. b) artikulua- Tokiko politika publikoak identifikatzen, prestatzen, kudeatzen eta ebaluatzen, eta herri arazoetan parte hartzea

Eskubide horiek, aukera izatea baino, gauzagarritasuna bermatu behar dela xedatzen du udal legeak:

43.i) artikulua- Legeetan eta udal-ordenantzetan herritarrek parte hartzeko aurreikusitako bitartekoez baliatzea bermatuta egotea.

67.2 artikulua- Herritar orok izango du politika publikoetan parte hartzeko eskubidea. Hartarako, erakundeek eskubide hori bermatuko dute eta baliabideak jarriko dituzte hura gauzatze aldera.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus -- www.donostia.ehbildu.eus -

Eta zehazki, udalbatzarretan herritarrek hitza hartzeko eskubideari dagokionean, ondoko xedapenek zuzenean eta zeharka berau bultzatu eta babesten dute:

72. 3 artikulua- Toki-erakundeek bultzatuko dute herritarrek udal-organo ezberdinetan parte hartzea, eta erregulatu ahal izango dute parte-hartze horren araubide juridikoa.

30.6 artikulua- Toki-erakundeen bilkura publikoetan, herritarrek Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute, eta ezingo zaie exijitu hitz egiteko aukeratu ez duten hizkuntzan itzulpenik egiterik edo azalpenik ematerik.

Zerbaitegatik Erkidegoko beste 2 hiriburueta, Bilbon zein Gasteizen, kide anitzeko organoetan herritarrek hitza hartzeko bermea dute eta prozedura eraginkorra ezarria dute horretarako. Bilbon adibidez, Informazio, Sustapen eta Kontrol tresnen Tituluan, araututa dago udal batzarreko azken puntuau bizilagun edo elkarteeek udal eskumenei dagozkien sustapen politikoko ekimenak aurkez ditzaketela, gehienez 3 udal batzar bakoitzeko, eta eztabaiderako txandak zehaztuta dituzte (120. artikuluan).

Arau-proposiziorako ekimen honen bideragarritasunari dagokionean, araudi-aldaaketa bat dator ondorengo printzipioekin:

- Beharrezkotasuna: 2017ko urtarileko udalbatzarreko sindikatuen hitza-hartzeak, agerian utzi zuen beharra dagoela, eta udalbatzarrez udalbatzar, aretora bertaratzen diren bizilagun edo elkarteeek behin baino gehiagotan eskatu dute unean udal ordezkarien aurrean hitz egin ahal izatea.
- Proportzionaltasuna: araudi aldaketak soilik herritarrek hitza hartzeko eskubidea jaso eta prozedura bat ezartzera mugatzen da, beraz, asebete nahi duen beharrarekiko proportzionaltasuna mantentzen du.
- Segurtasun juridiko: udal gaindiko araudiek (estatuko toki-araubidea, Euskadiko udal legea, beste hiri handietako udalen araudiak...) partaidetzarako eskubide hori babesten dute.
- Eraginkortasuna eta efizientzia: araudi-aldaaketaren eraginkortasuna, baliabide gehigarririk eskatu gabe, herritarrek udalbatzarrean hitza hartzeko eskubide eta prozedura gauzagarririk eta arin bat xedatzean datza.
- Gardentasuna: hain zuzen, udal organoen, zehazki, batzorde eta udalbatzarraren gardentasun maila indartzera dator, herritarren presentziaz gain, parte hartza sustatzen baitu.

Beste alde batetik, ez dio eragiten erakundearen aurrekontu-egonkortasun eta -orekari, ez eta iraunkortasun finantzarioari, ez baitio gastu ekonomiko gehigarri nabarmenik eragiten udalari eta udalbatzarren ohiko funtzionamenduari. Izatekotan, soilik udalbatzarraren denboraren luzapen labur batek izan dezakeen eragina argindarraren gastuan.

Esandako guztiagatik, eta ikusita...

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus -- www.donostia.ehbildu.eus -

- Herritarrek udal ordezkarien organo nagusienetan hitza hartu ahal izatea, gobernantza eredu berriaren baitan, udaletxe demokratiko, garden eta parte-hartzale baten gutxieneko baldintza bat dela,
- Bilbon edo Gasteizen egiten den antzera, herritarrek udalbatzarrean hitza hartzeko eskubide eta bermezko prozedura eraginkor bat izan behar dutela araututa,
- Batzorde zein udalbatzarrean herritarren partaidetzari dagokionean, Partaidetzarako Araudi Organikoa eta Udalatzaren Erregelamendu Organikoa bat etorri behar direla,
- Eta Euskadiko 2016ko Udal Legeak babesten duela herritarrek udal organoetan parte hartzea,
.... hauxe da EH Bildu udal taldeak udalatzak hartzeko proposatzen duen:

ERABAKIA

- Udalatzaren Organo Araudia aldatzea ontzat ematea, kide anitzeko udal organoetan hiritarrek hitza hartzeko duten eskubidea arautzeko.
- Ondorioz, Arau Proposiziorako ekimen hau Aurretiaz Konsulta Publikoan jartzea, Udalatzaren Organo Araudiaren 115. artikuluak dioenarekin bat eginda.

Donostian, 2017ko azaroaren 17a

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus -- www.donostia.ehbildu.eus -

**INICIATIVA DE PROPOSICIÓN NORMATIVA PARA LA MODIFICACIÓN DEL REGLAMENTO
ORGÁNICO DEL PLENO**

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, portavoz del Grupo Municipal de EH BILDU, al amparo de los artículos 90 y 91 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INICIATIVA DE PROPOSICIÓN NORMATIVA para modificar el Reglamento Orgánico del Pleno (ROP) en relación al derecho de la ciudadanía a tomar la palabra en los órganos municipales.

JUSTIFICACIÓN

El 26 de julio de 2016, los representantes del sector comercio de los sindicatos ELA, LAB, CCOO y UGT registraron una solicitud para hacer uso de esta posibilidad en el Pleno de octubre del mismo año, en relación al debate sobre las Zonas de Gran Afluencia Turística. Tuvieron que recorrer un camino lleno de dificultades hasta que, transcurrido medio año, pudieron exponer su queja y su solicitud en el Pleno de enero de 2017 (aunque el tema se había incluido en el orden del día del Pleno de diciembre), en el turno de ruegos y preguntas ciudadanas.

Nuestro grupo sacó una conclusión clara de estos hechos: el espacio que puede darse a la participación de la ciudadanía y de las y los agentes en las comisiones y en el Pleno está totalmente condicionado por el reglamento y por el procedimiento vigentes en la actualidad y no facilita en absoluto un diálogo público activo, a pesar de ser éste uno de los pilares de la democracia. Por ello, en la moción que nuestro grupo presentó en el Pleno sobre el derecho de los sindicatos a opinar, incluimos un tercer punto que decía lo siguiente:

"El Pleno solicita encarecidamente al Gobierno Municipal que presente una propuesta normativa para la adaptación del artículo 18 del Reglamento Orgánico para la Participación Ciudadana, con objeto de que las y los representantes de la ciudadanía donostiarra y de las asociaciones presenten sus solicitudes y quejas en plazos razonables en las comisiones y en el Pleno, y gocen del derecho subjetivo de recibir una respuesta."

Según el artículo 18 de la Norma Orgánica de Participación Ciudadana, tanto la ciudadanía donostiarra como las asociaciones de la ciudad tienen la posibilidad de exponer de forma oral, en la comisión correspondiente o en el Pleno, las solicitudes o quejas que han formulado al Ayuntamiento. Junto con ello, hay que recordar que en abril de 2014, en la modificación del Reglamento Orgánico del Pleno, en el artículo 66, que regula la estructura del Pleno, se incluyó en el orden del día un punto denominado "Preguntas de los ciudadanos".

La moción fue aprobada por unanimidad en el Pleno celebrado en enero de 2017. En marzo del

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus -- www.donostia.ehbildu.eus -

mismo año, preguntado al Gobierno Municipal sobre el cumplimiento de dicha moción, se nos comunicó que no se rechazaba la modificación del Reglamento Orgánico, pero previamente se iba a realizar una instrucción para poder realizarse con la debidas garantías el trámite de la toma de palabra por parte de ciudadanos y asociaciones en los plenos.

En mayo de 2017, habiendo preguntado nuevamente sobre el tema, se nos respondió que la instrucción referente al artículo 18 de la Norma Orgánica de Participación Ciudadana se estaba consensuando con la Secretaría General e iba por buen camino. En el mismo sentido y paralelamente, para afianzar jurídicamente el derecho a la toma la palabra, le sugerimos que convendría que la Norma Orgánica de Participación Ciudadana y el Reglamento Orgánico del Pleno sean coherentes y coincidan. De hecho la Disposición adicional segunda dispone que "La participación de los ciudadanos en el Pleno y sus Comisiones se regirá por lo dispuesto en el reglamento orgánico de participación ciudadana". Por ello, manifestamos que nos parecía práctico aprovechar la adaptación del Reglamento Orgánico para incluir también el cambio de la Moción de Control. En el mismo sentido, y aunque en la modificación del Reglamento en abril de 2014 se incluyera en el orden del día el punto "Preguntas de los ciudadanos", consideramos que sigue estando incompleto el derecho de toma de palabra por parte de los ciudadanos y el consiguiente procedimiento de garantías.

Transcurrido un año desde que los sindicatos presentaron la solicitud para tomar la palabra en los plenos, el Gobierno Municipal no ha modificado la Norma Orgánica de Participación Ciudadana ni ha materializado la sugerencia realizada por EH Bildu, puesto que no ha propuesto ninguna modificación de artículos en la adecuación de la normativa de plenos para afianzar el derecho de toma de palabra. En ese sentido, por parte de EH Bildu proponemos que se modifiquen las dos normativas, para afianzar el derecho de toma de palabra en el Pleno por parte de los ciudadanos, y se realice mediante un procedimiento jurídico-administrativo transparente, eficaz y realizable.

En el ámbito de esta iniciativa, queremos subrayar que la Ley 2/2016, del 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, defiende la toma de palabra de los ciudadanos en comisiones y plenos. En general, en lo que respecta a la participación de los ciudadanos, dispone que los ciudadanos tienen derecho a:

Artículo 43.b) - Participar en la identificación, elaboración, gestión y evaluación de políticas públicas locales, así como en los asuntos públicos...

La ley municipal establece que no es solamente un derecho sino que debe garantizarse su ejercicio:

Artículo 43.i)- A que se garantice el ejercicio de los instrumentos de participación ciudadana previstos en la legislación y en las ordenanzas municipales.

Artículo 67.2- Todo ciudadano o ciudadana tendrá derecho a participar en las políticas públicas. A tal fin, las instituciones garantizarán este derecho y dispondrán medios para su

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus -- www.donostia.ehbildu.eus -

ejercicio.

Y concretamente, en lo que respecta al derecho de toma de palabra por parte de los ciudadanos, las siguientes disposiciones la fomentan y protegen:

Artículo 72.3- Las entidades locales impulsarán la participación ciudadana en los distintos órganos municipales, pudiendo regular su régimen jurídico.

Artículo 30.6- En las sesiones públicas de los órganos de las entidades locales, los ciudadanos y ciudadanas podrán emplear cualquiera de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma, sin que pueda exigírseles la traducción o explicación alguna en la lengua que no hubieran elegido para expresarse.

Por algo tienen en las otras dos capitales vascas, en Bilbao y en Vitoria-Gasteiz, los ciudadanos la garantía de tomar la palabra en los órganos colegiados y tienen un procedimiento eficaz para ello. Por ejemplo, en Bilbao, en el Título Instrumentos de Información, Impulso y Control, se establece que en el último punto del Pleno del Ayuntamiento la ciudadanía y las asociaciones podrán presentar acciones de impulso político que se refieran a ámbitos competenciales dependientes del Gobierno Municipal, un máximo de tres por pleno, y están establecidos los turnos de réplica (Artículo 120).

La presente propuesta normativa cumple los siguientes principios de aplicación a toda modificación normativa:

- Necesidad: la intervención de los sindicatos en el pleno de enero de 2017 puso de manifiesto la necesidad de la modificación; además, las personas y las asociaciones que se han acercado a las sesiones plenarias han solicitado repetidamente poder hablar ante los representantes municipales.
- Proporcionalidad: la modificación normativa se limita a recoger el derecho de la ciudadanía a tomar la palabra y establecer un procedimiento para ello; por lo tanto, es proporcional a la necesidad observada.
- Seguridad jurídica: las normativas supramunicipales, la normativa estatal de régimen local, la ley municipal vasca y los reglamentos municipales de otras grandes ciudades, entre otros, garantizan el derecho de participación.
- Eficacia y eficiencia: la eficacia de la modificación normativa exige garantizar el derecho de la ciudadanía a tomar la palabra en las sesiones plenarias y de disponer de un procedimiento ágil y ejecutable, sin necesidad de recursos adicionales.
- Transparencia: la modificación normativa viene a reforzar el nivel de transparencia del pleno y las comisiones, puesto que fomenta la participación de la ciudadanía, además de su mera presencia.

Por otra parte, la modificación no repercute en el equilibrio y la estabilidad presupuestaria de la corporación ni en su sostenibilidad financiera, puesto que no incrementa apreciablemente ni el gasto económico del ayuntamiento, ni el gasto del funcionamiento corriente del pleno. La única

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus -- www.donostia.ehbildu.eus -

incidencia posible en el gasto puede ser aquella derivada de un mayor gasto eléctrico por una ligera prolongación en la duración de las sesiones plenarias.

Por todo lo expuesto y visto...

- Que posibilitar que la ciudadanía tome la palabra en los principales órganos municipales es, dentro del nuevo modelo de gobernanza, una condición fundamental para lograr una corporación democrática, transparente y participativa,
- Que la ciudadanía debe tener regulado, tal como sucede en Bilbao o Vitoria-Gasteiz, un procedimiento garantista y eficaz para que pueda ejercer el derecho a tomar la palabra en las sesiones plenarias,
- Que la Norma Orgánica de Participación Ciudadana y el Reglamento Orgánico del Pleno deben coincidir en la regulación de la participación de la ciudadanía en las comisiones y en las sesiones plenarias,
- Y que la Ley Municipal Vasca de 2016 posibilita la participación de la ciudadanía en los órganos municipales,

El grupo EH Bildu propone al Ayuntamiento Pleno la adopción del siguiente

ACUERDO:

.- Entender procedente la modificación del Reglamento Orgánico del Pleno, con el fin de regular el derecho de la ciudadanía a tomar la palabra en las sesiones de los órganos colegiados municipales.

- - Someter, en consecuencia, esta iniciativa de Proposición Normativa al trámite de Consulta Pública Previa, de conformidad con lo previsto en el artículo 115 del ROP.